

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

3/2019 Mozioa, urtarrilaren 16koa, Ullibarri-Ganboako urtegiaren eraikuntzari lotutako historia berreskuratzeari buruz

Arabako Batzar Nagusiek, 2019ko urtarrilaren 16an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

3/2019 Mozioa, urtarrilaren 16koa, Ullibarri-Ganboako urtegiaren eraikuntzari lotutako historia berreskuratzeari buruz.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote Ullibarri-Ganboako urtegiaren eraikuntzak eragindako udalerriekin (Barrundia, Arratzua-Ubarrundia eta Burgelu) eta desagertutako herrietako biztanle gehienak hartu zituen Vitoria-Gasteizko udalarekin batera Garaio eta Landako parkeetan egokitzat jotzen duen lekuetan argibide-panelak jar ditzala erabat edota partzialki urperatuta geratu ziren herriak adierazteko.

2. Arabako Batzar Nagusiek Gazte Foru Erakundeari eskatzen diote Zuhatzako Irlan argibide-panela jar dezala, egungo irlaren jatorria gogorarazteko.

3. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote Garaio eta Landako parkeei lotutako material didaktikoa mozio honetan esandakoaren arabera berregokitu dadila, aipatu parkeak bisitatzen dituzten haur eta gazteek gure historiaren atal hau ezagutu dezaten.

4. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote aipatu udal guztiekin horiekin batera ekitaldi instituzional bat burutu dezala, esfortzu komunikatibo berezia eginez bere garaian herriotan bizi ziren biztanleengana eta euren ondorengoengana heltzeko. Ekitaldi bat, non herriotako biztanleek pairatu zituzten ondorio negatiboak aitortuko diren, are gehiago Frankismoak larriagotu zituela kontutan izanda, eta era berean bizi izandakoa erreparatzeko balio izango dien.

5. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote aipatu udal guztiekin horiekin batera espazio bakar bat aukeratu dezala, zeinetan aipatutako bederatzi herrien memoria jasoko duen elementu artistiko bat ezarriko den.

6. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote inplikaturako udaletako ordezkariekin batera hilabeteko epean lan talde bat osatu dezala ekimen hau aurrera eramateko.

7. Arabako Batzar Nagusiek euren errekonozimendua adierazten diete Azua, Garaio, Larrantzar, Marieta, Mendixur, Mendizabal, Langraitz-Ganboa, Orenin, Zuhatzu-Ganboa eta Urizar herrietako bizilagunei, bai eta urtegiaren eraikuntzan lan egin zuten pertsoneri.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urtarrilaren 16a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA